

Aretxabaleta,
1994eko irailak 29

Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABAETA

Atxabalta etorkizunerantz begira

- *Zaraia zinemaren itxiera*
- *Jubilatuen eguna*
- *Eskulanen ikastaroa*

- 3. Kartak
Zinerik gabe geratzen gara.
- 5. Hamabostean behin
Zaraia zinea itxi egin dute.
- 7-8-9. Hamabostean behin
San Migel jaien bixamona.
- 10-11-12. Erreportaia
Atxabaltako aldaketak
- 13. Kirolak
Pilota: Herri arteko txapelketa.
- 14. Besteak beste
- 15. Kontu zaharrak
- 16-17. Jolasean
- 18. Hurretik
Maite Perez.
- 19. Apuntetako eta Aretxazoka

HERRI TXIKI LASAIA

Atxabaltari lehenago itxura hasia zaio urruntzen lehenago herri txiki, lasaia handi ari da bihurtzen: industrialdea, etxe berriak... ta parkea Santakurtzen, Ibarra aldean ere badabiltz berdintze lanak burutzen, laster nahiko lan izango dugu gure herria ezagutzen.

Txikia seme omen da beti ta handia gurasoa antzekoa da mondrauekoek sortu duten arazoa: "Arrasateko auzo bat soilik da Atxabalta gaixoa" baina Atxabaltak segi ezker hedapenaren pausoa, laster hiria bihurtuko da ta Arrasate auzoa.

Saioa Arando

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi K.E, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94.

Aurten zinerik gabe geratzen gara

Zoritxarrez, lege aldetiko arazoek, zinema emanaldiak bertan behera uztera behartzen gaituzte. Lokala ez dago aurri egoera batetan, baina Joku eta Espektakuluen Polizia bertatik pasa ondoren, zinemak, berrinaguratu berri xamarra izan arren, indarrean dagoen espektakuluentzako diren lokal publikoei buruzko araudia ez duela egokitzen adierazi zitzaigun. Araudi honek, larrialdietarako irteera baliogarriez dihardu, eta sute posibleak ekidin asmoz, materialeak erre-ezinak izan behar direla adierazten du. Gaintek begiratuta eta gaiari buruzko ezagupen handirik izan gabe, lokal barnean aldaketa serioak egitera behartzen gaituela ikus daiteke, hala nola, moketa, eserlekuak, kortinak, pantaila etab. aldatzera.

Berandu, baina zehapen ekonomikoren bat edo beste jaso ondoren, egokitze proiektu bat idazteari ekin zaio, nahiz eta, zinema berriro ere noiz izango dugun esatera ausartzen ez garen. Jabetzen naiz zer suposa dezakeen zinemarik eta zinerik gabeko negu batek; nora joango dira gure gaztetxoak?. Dena den pixka bat pentsatuz, askoz habeagoa dela aurten sakrifizio txiki bat egitea eta gerta daitezkeen kalteak

ekiditea deritzot, "alferrik bait da ura iragan ondoren presa egitea".

Bestalde, ez zaizkigu arazo guztiak hemen amaitzen, izan ere Kiroletxean ezin da, kirolarekin zerikusirik ez duen ezer antolatu. Araudi hau ere berria da, eta duela pare bar urtetik hona aplikatu izan zaigu. Beinkek urtarrilean antolatutako jaialdiagatik, Portasolgo jaietakoagatik, eta Elkarrik duela gutxi antolatutako jaialdiagatik zigortuak izan gara, zegokion isuna ezarri zaigularik. Isun hauek 500.000 pztetakoak izaten dira, eta zigor hauen aurka errekurtsioak aurkeztu diren arren, Eusko Jaurlaritza premiamenduz kobratzen hasi da, hau da, eman beharreko dirulaguntzetatik diru-kopuruak kenduz.

Kiroletxean aspektu burokratikoak ez dira betetzen, papeleo hau ez bait da inoiz ere amaitzen, eta honetaz gain, Ibarako kirol zonaldea bukatua egon arte, erabakitzeke dauden gai teknikoak ere badaude. Anekdotak moduan zera esan daiteke, isun edo errekerimenduak, atxabaltarrek antolatzen dituzten jaialdiei bakarrik ezartzen zaizkiela. Urte honen haseran, Eusko Jaurlaritzatik adierazi zitzaigun, Parlamentu Txikia

ospatzeko hautatuak izan ziren herrietako bat zela, Aretxabaleta. Kirol Etxean bildu ziren Leintz Bailarako gaztetxo guztiak. Hau ere ez zen kirol ekitaldi bat, eta aurretik bageneukan isunen bat ezarria. Ertzantza iritsi zen eta lokalaren arduadunaren presentzia eskatu ondoren, eta ekitaldia Eusko Jaurlaritzak antolatzen zuela jakinerazi ondoren, aktarik jaso gabe, "hanka" egin zuten. Guzti hau dela eta arriskua, atxabaltarrek ekintzaren bat antolatzen dugunean bakarrik ematen dela, ondorioztatzen dugu.

Ez dadila inor beldurtu eta ez ditzala inork eskuak burura bota, Kirol Etxean zerbait antolatu nahi eta baimenik ematen ez bazaio. Behintzat papeleo guzti honi irtenbide bat ematen ez zaion bitartean.

Ulertuko duzuelakoan nago. Aurrez, milesker.

*Felis Beltran de Heredia
Kultur Batzordeburua*

Urriaren eskulanetako 4 ikastaro emango dira Atxabaltan. Mila Akizuk astelehenetan 6.30etatik 8.30etara eta asteazkenetan 3.30etatik 5.30etara emango ditu klaseak. Lehen ikastaroa urriaren 3an hasiko da eta bigarrena 5ean. Piedad Romanek, ostera, martizenetan goizeko 9etan eta artzabaldeko 4retan emango ditu. Ikastaroa hauek urriaren 4an hasiko dira. Izen ematea Kultur-Etxean egin behar da eta prezioa 2.000 ptakoa da.



Dorleta-Dorleta IV. zikloturista martxa egin zen irailaren 18an. Atxabaltako zikloturistek ez zuten kale egin eta eguraldi txarra izan arren, Dorletaraino hurbildu ziren. Dorletan beraz, inguruko 71 zikloturista elkartu eta 105 kilometroko ibilbideari aurre egin zioten. Dorletatik Landa, Ullibarri, Miñano, Urbina eta Arabako beste zenbait herri pasa ondoren Aramaixora heldu ziren, Arrasate eta Atxa-

balta pasa ondoren Dorletarako bidea hartzeko. Kilometro asko, baina hala ere, ederto pasa zuten bertan bildutako guztiek. Bestalde denboraldia bukatzeko urriaren 2an bazkaria izango dute zikloturistek Arrasateko Gorosti jatetxean. Zikloturista bazara ez galdu aukera!

ANGELINES
Autozerbitzua



Mitarte, 16

☎ 79 61 42

IZOTZ
TABERNA

Mitarte, 16


☎ 79 73 65

Novedades

MODAN
DAGOEN
GUZTIA



Iparragirre, 4
Tfnoa. 79 21 24



Negu honetan ezingo dugu Zاراia filmerik ikusi

Zaraia zinema itxi egin dute

Zaraia zinema itxi egin dute legeak eskatzen dituen hainbat baldintza betetzen ez duelako. Zaraia zinema berriztu zutenean, 82an indarrean zegoen legean oinarritu ziren. Lege horrek eskatzen zituen baldintzak ondo betetzen ziren garai hartan, baina 1991n beste lege bat jarri zen indarrean: CPI, "suteen kontrako legea" hain zuzen ere. Lege horrek baldintza bereziak eskatzen ditu, besteak beste, emergentzia

ateak, sute detektagailuak eta zinean material ez-erregairik egotea. Une honetan Zaraia zinemak ez ditu baldintza horiek betetzen, eta gauzak behar diren bezala egokitu arte, Udalak ixteko erabakia hartu du. Dena dela, esan beharrra dago zineko arazoa konpontzeko Udaletxean lanean hasi direla. Emergentzia plan baten aurreproiektua egin dute eta orain zein kostu izango duen baloratzen ari dira. Zenbateko gastua

izango den erabakitzen dutenean Gobernu-batzordean hartzen den erabakia itxaron beharko da, egokitze lanekin has daitezten.

Kirol-Etxean beste horrenbeste

Bestalde, arazo berdintsua dauka kirol-Etxeak. Kirol-Etxea, kirola egiteko prestatua egon arren, ekintza puntualak, hau da, kontzertuak, jaialdiak eta abar egiteko behar diren baldintzak ez ditu betetzen. Baldintza horiek betetzeko, emergentzia-ateak haunditu beharko lirateke, alarma sistema ipini eta ebakuazio seinaleak egokitu, besteak beste. Kirol-Etxearen arazoan ere, aurreproiektua egin dagoen arren, zenbateko gastua izango den baloratu behar dute, gero Gobernu Batzordean honen aurrean zer egin erabakitzeko. Udaleko arduradunek esan digutenez, Zinema eta Kirol-Etxea egokitzeko egin dituzten proiektuak onartzen direnean, berritze lanekin hasiko dira.

Atxabaltako Udala bai Zinema eta baita Kirol-Etxea ere egokitzeko gertu dagoen arren, ez du epe finkorik ezarri, beraz, ez dakigu epe motzean edo luzean konponduko den arazoa.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria

ZARAIA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA ANAIK



Jubilatuen eguna

Urriaren leian "jubilatuen eguna" ospatuko da Atxabaltan. 65 urte gorakoek zita garrantzitsua izango dute urriko lehen zapatuan. Egitarauari dagokionez, goizeko 10.30etan guztientzako salda beroa banatuko da Basotxon. 12etan, barriz, meza izango dute parrokan eta ondoren bazkaria Kirol-etxean. Bazkariko menua hauxe izango da: hasteko

marmitakoa egongo da, ostein legatza koxkera erara, flana izozkiaz eta bukatzeko kafea, kopa eta purua. Bazkal ondoren, gorputzak ondo astintzeko, dantzaldia egongo da.

Jubilatuen egunera Atxabaltako jubilatutuek guztiek joateko aukera izango dute eta egun handi hori urtero bezala aurten ere arrakastatsua izatea espero da.

Untzilako jaiak

Urriaren 7tik 9a bitartera, Untzilako auzoan jaiak ospatuko dituzte. Eguakotxean Untzilako elkarteko bazkide eta auzokide guztiek auzo-afaria izango dute eta ondoren bertso-saioa eta trikitilariak. Bertsolariak Lizaso eta Zeberio izango dira eta trikitilariak Aintzane eta Goio. Zapatuan ordu batean meza, auzoko hildakoen alde. Gaueko 10.30eta-

tik goizalde arte Lotxo taldearekin dantzaldia. 11etan Murubide elkarteko XIII. bolo txapelketa. Irabazleak garaikurra, txapela eta 25.000 pta jasoko ditu. Bigarrenak garaikurra eta 15.000 pta. Txapelketako bost lehenek jasoko dute saria. Domekan, eguerdiko ordu batean meza nagusia egongo da eta ondoren Nikolas Gardoki soinu-jolea.

Urriaren 3an Okila taldeak antolatu duen taila ikastaroa hasiko da. Ikastaroa Okila taldeak duen tailerlean emango dute eta ordutegia arratsaldeko 6etatik 8etara izango da. Ikastaroa interesatzen bazaizu, Okilaren tailerlean, Udaletxean edo Kultur-Etxean eman dezakezu izena.

Urriaren 3an ikastaroa hasiko da. Hiru txanda egongo dira: martizen eta eguenetan goizez, 11etatik 12.30ak arte. Beste talde bat arratsaldez 3.15etatik 4.45ak arte, astelehen eta eguaztenetan. Eta hirugarren taldea, martizen eta eguenetan 7etatik 8.30ak arte. Yoga ikastaroa Loramendi Dantza taldearen lokalean emango da eta irakaslea Enkarna Mendez da.

**T
X
I
L
A
R
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28

ARETXABALETA

Loramendiko lokala inauguratu zen San Migeletan.



Eguraldi euritsuz eman genion ongietorria udazkenari eta baita San Migel jaiei ere. Eguakotxean bota zuen euriagatik zenbait ekintza bertan behera geratu ziren. Zapatuan barriz, eguraldi hobeaz esnatu zen eguna eta arratsalde aldean euri zaparrada bota bazuen ere, laino urdinak nagusitu ziren azkenean eta hego aize eta guztiz, jai egun prime-

rakoa pasatzeko aukera izan genuen. San Migel jaietako zapatuan azpimarratzeko moduko bi ekintza egon ziren. Batetik, 7etan Beinke-Loramendi dantza kantuararen aurkezpena egin zen herriko plazan. Astetan dantza entsaiatzen ibili diren Atxabaltako gazteak, Atxabaltako abesbatza, txistulari eta beste zenbait musiko elkartu eta ekitaldi zora-

garria erakutsi ziguten. Ordu erdi beranduago, Loramendi taldearen lokal berria inauguratu zen, jende dexente hurbildu zen bertara eta lokala ikusteaz gain luntxa jateko aukera izan genuen. Domekan, txirrindulari lasterketa, Atxabaltako Bandaren kalejira eta emanaldia, mus txapelketa eta Aldaba taldearekin dantzaldia izan genituen besteak beste.

**AITZIBER
NIÑO**



Lezama Merkatal Zentrua
Tlfnoa: 79 13 32

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34
79 31 87

**JOSU
URDAITEGIA**

Mitarte, 1



Bertsozaleek zita garrantzitsua izan zuten eguakotxean **Zaraia zineman**. Bertsotan, modan dauden hiru bertsolari gazte, Jon Maia, Jokin Sorozabal eta Igor Elortza eta dagoeneko beteranoa den Jon Sarasua atxabaltarra entzuteko aukera izan genuen. Gaiak jartzen eta saltsa bila, barriz, Jon Iñaki Izarzelai. Saioa borobila, jakina, horrelako bertsolariak ekarritz gero, ezin da besterik espero.

Zapatuan, ohiturari jarraituz, jende asko baserritarrez jantzita urten zen kalera. Durana kalean, Tril emakume taldeak taloen postua jarri zuen, oso arrakastatsua izan zena gainera. Herriko plazan, bestalde, artisau ferixa jarri zuten eta bertan, eskopeta zaharrak, larruz egindako bitxikeriak, egurrezko piezak... denetik ikusi ahal izan genuen. Murrukixokoek bestalde laztoz egindako postua jarri zuten eta bertan ez ziren oiluak, oilarrak eta astoa falta izan.



GUREA

TABERNA
JATETXEA

Durana Kalea
Ifnoa: 79 20 64



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3
Ifnoa: 77 11 76

MATIKUA Taberna

Azatza auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABALETA



Beinke-Loramendi dantza kantuaren aurkezpena egin zen zapatuan. Musika Jose Ramon Bitoriak egin du, dantza Atxabaltako dantza taldeak prestatu du eta kantuaren letraren egileak, Jon Sarasua, Aitor Sarasua eta Jon Iñaki Izarzelaiak izan dira. 7etan beraz, herriko zenbait gazte, abesbatza, txistulari eta musikoen laguntzaz, astetan prestatzen ibili diren dantza emanaldi zoragarria erakutsi ziguten. Hemendik aurrera prestakuntzan parte hartu ez genuen atxabaltarrok badugu kantu bat eta dantza bat ikasteko.

Herri bazkarian jende dextentek hartu zuen parte. Giroa ezin hobea eta bazkaldu ostean parrandak aurrera egin zuen. Zapatu gauean Atxabalta jendez gainezka egon zen, tabernetan ez zegoen sartzetik eta ordularia ordu bete atzeratzea tokatzen zenez, auskalo zein ordutan etxeratu zen jendea. Batzuk eta kopuruz asko, ziur gaude, egunkari eta ogiaz agertuko ziren etxean.



CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

94-95 IKASTURTEA
INGELESA - Ikasle berrientzat
Ikasturtearen hasiera Urriaren 3an
Oraindik garaiz zaude!
MATRIKULA ZAITEZ


Kurtzebarri Eskolan, egunero 5tédietatik 7ak arte.

ARRASATE
Araba Etorb.
Tf. 79 01 32

MITARTE
GARAI

• *Jatetxea eta logelak* •

Areantza auzoa
☎ 79 17 51



Obra batzuk egiten ari dira, goiko argazkian ikus dezakegunez, beste batzuk bukatuta daude, honen lekuko beheko argazkia

Atxabalta goitik behera aldatzen ari zaigu

Atxabalta herri txiki eta lasaia, haundiketan dabil poliki-poliki. Lehen kalegoia, erdiko kale eta kalebarren esanez dena ulertzen zen. Orain barriz, zehaztasun gehiago eman behar dugu nora goazen eta nondik gatozen esateko, Atxabalta gero eta handiago bihurtzen dabilelako da.

Konpontze lanak eta aldaketak nonahi ikus ditzakegu. Azkenengo urte hauetan gauza asko egiten dabilta gure herrian; batzuk aitatzekotan, hor dago Basabeko industrialdea, hor dago Santakurtz kaleko parkea, San Migel aldea... Beste zenbait obra barriz, oraindik bukatzeko dau-

de, Arrueneko txaletean egiten dabilzan etxebizitzak, Ibarra aldea..

Hauen denen barri jakiteko eta Udalbatzak dituen proiektu barriak gertutik ezagutzeko Iñaki Pierruguesekin egon gara berbetan. Iñaki Udaleko Hirigintza saileko arduraduna dugu.



Iñaki Pierrugues dugu Udaleko Hirigintzako ardura-duna. Duela 4 urte Udaltauteskundeak burutu zirenean kargu hori hartu zuen. Iñakik berari tokatu zaion legealdian egin diren lanen berri eman digu, eta baita esku artean dituzten beste zenbait proiektuen berri ere.



Iñaki Pierrugues Hirigintzako arduraduna

- Udaletxera heldu zinean, zer da hirigintza mailan egin zenuen lehen gauza?

- Hirigintzako ardura hartu nuenean, plangintza bat egin nuen 4 urteko legealdian egin beharreko gauzak zehazteko. Plangintza horretan oinarritu gara egin diren aldaketa guztiak egiteko.

- 4 urteok betetzear daude; bete dituzue helburuak?

- Gehienak bai, horregatik nahiko pozik gaude. Etxebizitzetxei dagokienez, helburu guztiak bete ditugu, Ibarra aldea martxan jarri dugu, San Migel auzoa ere bai eta Iturbeko zonaldea, 25 urtetan geldirik egon ondoren, moldatzen hasi gara. Dena dela, betetzeko helburu bat falta zaigu: alokairuzko etxebizitzena hain zuzen ere. Gure helburua alokatzeko moduko etxeak egitea zen, baina oraindik proiektua besterik ez dugu.

- Auzoetan ere egin duzue aldaketarik, ezta?

- Hirigintza arloan ekintzak

egin ditugu auzoetan, kaleak asfaltatu dira, farolak ipini, estolderiak konpondu, jardinak txukundu.... Ingurugiroaren gaia ere heldu diogu, kontrolik bako isurtegiak itxi ditugu, Urkuluko harrobia moldatzen gabiltza eta orain industriako isurtegiak kontrolatzeko proiektu batekin ari gara lanean. Nekazal auzoetan hornikuntza eta saneamendu plan bereziak egin ditugu eta orain falta zaigun bakarra Arkarazo aldea da.

- Ze berrikuntza gehiago egin dira?

- Santakurtz kaleko parkea, kanposantua, honez gain, trafikoko arazoa nolabait konpondu ahal

izan dugu, bideak margotuz eta errotondak ipiniz. Durana kalea, hau da, alde zaharra eta herriko plaza birgaitu egin ditugu, fatxadak margotuz eta etxe zaharrak konponduz. Kaleetan pertsona ezindunek arazorik izan ez dezaaten arpaloiak jeisten ari gara. Gero, kaleko bankuak ere margotu ditugu, zakarrontzi barriak jarri eta herria garbi edukitzen arduratuko den enpresa bat kontratatu dugu. Uste dut gainera, garbitasun arloan aurrera pausu garrantzitsua eman dela Atxalbaltan.

- Durana kalearekin zer gertatzen da?

- Aditu batzuek esan digute mortairuaren porlan kapa dela oker guztien eragilea. Orain proiektu bat egiten ari gara porlan kapa egokitzeko eta mortairua baldintza onean uzteko. Aurrekontua 10 milioi pezetakoa izango da eta proiektua bukatu eta baloratzen dugunean, konpontze lanekin hasiko gara.

Atxabalta dinamiko gura badugu, obren beharra dago, nahiz eta askotan sekula ez direla bukatzen pentsatu

- Une honetan plangintza-rako arau subsidiarioak egiten ari zarete, zer dira eta zertarako balio dute?

- Hirigintzako plangintza egiteko dokumentua da, dokumentua herriaren garapena zehazteko balio du. Honen bitartez non egin daitekeen etxebizitza gehiago, non jarri industrialdeak, non ezin daitekeen horrelako ezer egin eta abar zehazten da. Arau hauek oso garrantzitsuak dira herria zelan geratu behar den zehaztu eta jakiteko. Arau subsidiarioen arabera proiektu berriak egin ditzakegu, baina hauek barik ezin dira gauzak zehaztu. Une honetan 84an onartu ziren arau subsidiarioekin gabiltza, baina 8 urte pasa direnez berriak egitea tokatzen zaigu. 94ko arau subsidiarioen proiektua egina dago, dagoeneko, eta joan zen astean alderdi guztiei aurkeztu genien. Orain alderdiek proiektua aztertu beharko dute eta adostasun batera heltzen ba-

gara publikoan jarriko ditugu herritarrek sugentziak egin ahal izateko.

- Bestalde, eskuartean proiektu berririk ere baduzue?

- Proiektu batzuk onartuta daude eta berehala hasiko dira. Boliña eta Arkarazoko auzoetan hornikuntza eta saneamendu plan bereziaz hasiko gara, 28 milioiko aurrekontua izango du. Durana kaleko konponketak egitea ere onartua dago, 11 milioi izango da gutxi gora behera. Urkuluko harrobian, degradaturik da-

Plangintzako arau subsidiarioen berrikuspenarekin lanean gabiltza, arau hauek onartzea oso garrantzitsua da Atxabalta zelan geratuko den jakiteko.

goen zonaldea berreskuratu gura dugu, errekatxoa errekupeatu eta Urbaltzeruntz doan bidea konpondu, hori egiteko 12 milioiko aurrekontua izango dugu. Gero, Deba erreka bideratzeko asmoa dago 30 (Ibarra) eta 28 (Olazabal) zonaldeetan.

- Proiektua egina baina onartu barik?

- Beste hainbat proiektu dago horrela. Batzuk aipatzekotan, Eliza ostean pasealeku bat egitea gura da, Udaletxeko jardinetatik Tuboseko lantegiraino joango dena. Araba Ibilbidean hornikuntza eta saneamendu plana egiteko asmoa dago. Aisi-ortuak egiteko proiektu bat ere badaukagu, atxabaltarrek euren ortua izan dezaten gura dugu. Esandakoaz gain, beste zenbait aldaketa egiteko lanean ari gara, baina oraindik ez dago ezer zehaztuta. Entzuten diren barrietak hipotesiak besterik ez dira, batzuk gauzatuko dira beste batzuk ez.



Joseba Larrinaga munduko bigarrena



Joseba Larrinagak Elbarrietuen munduko maratoian 2. postua lortu du. Txapelketa Berlinen jokatu da eta Atxabaltako korrikalari trebe eta on honek maila ezin hobea erakutsi du. Josebak Albazeten jokatu ziren Espainiako txapelketan lehen postua lortu zuen 5.000 metro eta 1500 metrotan. Eguaztenean Udaleko ordezkariak ongietorri berezia egin zioten, korrika munduan egindako lan bikaina omentzeko plaka bat oparituz. Zorion beroenak Joseba!

Atxabaltako pilotariak denboraldian burubelarri

Atxabaltako pilotariak herri-arte txapelketa dabilta jokaketan. Irailaren 24an kadeteek Ormaiztegiko pilotarien kontra neurtu zituzten indarrak eta Lasagabaster- Bartolome bikoteak ez zuen arazorik izan Mujika-Iraeta bikoteari irabazteko (22-14). Seniorrei dagokienez, eskuz banako modalitatean, Errasti II. eta Aloñamendi taldeko Osa izan genituen aurrez aurre, orduan ere, atxabaltarra izan zen nagusi (18-14). Bestalde, San Migel pilota txapelketan herriko pilotariak ez dute zorte handirik izan, lehen neurketan, Bartolome eta Etxebarriak 12-22 galdu zuten Ubera-Antxiaren kontra. Bigarren neur-



ketan, Errasti anaiek ere galdu egin zuten Ubera II- Inurrategi bikotearen aurka. Datorren domekan barriz, Iturrigorri frontoian 11,30etatik aurrera bi partidu ikus-

teko aukera izango dugu. Kadeteek Añorgaren kontra jokatuko dute eta eskuz banakakoan Ibon Errastik Murubide taldeko pilotaria izango du aurrean.

Herritik mundura



J.J. Aretxaga

Lehenengo etxeko hautsak garbitu behar ei dira. Aurreko Aretxagazetan lora bat joan zitzaigula idatzi genuen eta orain beste bat etorri zaigula jarri beharko dugu; baina beste lora bat ez. Gure lehendakariaren anaia txikia, **Alberto Garro**, hasi da Aretxagazetan lanean. Nobedade ederra, orain pareja mistoa daukagu aldizkarian. Ez noa komentariorik egitera, bestela zentsuratu egingo didate.

Herriko kontuak utzi eta munduko kontuak aitatuko ditugu. **Gorka Etxabe** atxabaltarra El Mundo peridikorako lanean hasi da. Korrespontsal lanak egingo ditu Mondragoen domeketako futbol partiduak komentatuaz.

Munduko kontuekin jarraituaz, **Joseba Larrinaga** elbarrituentzako munduko maratoi txapelketan bigarren geratu zen. Martxa honetan Martin Fiz bera be harrapatu behar du.

Eta mundutik barriri herrira bueltatuko gara. Joan zen domekan, asko zapatuko bixamona zela ta ohean zeuden bitartean, jubenil mailako txirrindulari lasterketa izan zen. Karrera atxabaltar batek irabazi zuen, **Jose Migel Elizburuk**. Etxean jokatzek bentajaz dauka.

Honako hauek ez zuten horrelako bentajarik euki. Denak etxekoak ziren. San Migeletan, domeka arratsaldean, mus txapelketa jokatu zen. Irabazleak hauetxek izan ziren: lehenengo saria **Robertok** eta **Sebek** jaso zuten, bigarren lekuan **Igor** eta **Gaizka** geratu ziren, hirugarren **Modesto** eta **Landa**, eta laugarren **Letona** eta **Errarte**. Txapeldunei 20.000 pezeta, txapela eta trofeoa eman zitzairen.

Herritik mundura eta mundutik herrira ibili gara orain arte. Herritik urten eta munduan ibiltzeko modu diferenteak daudela ikusi dugu: arineketan, korrespontsal lanetan (El Mundon)...Baina honako hau "espektakularra" da.

Ipuin bat kontatuko dizuet. Bazen behin batean Pierre Boutron izeneko frantses bat. Frantses honek Jose Luis de Villalongaren liburu bat leiduta gero pelikula bat egitea pentsatu zuen. Horretarako Oñati eta Elorrio aukeratu zituen, oso leku dotoreak zirela pentsatu zitzaion. Baina aktoreak behar zituen pelikula egiteko eta "casting" bat (ze ete dok hori?) egin zuen Zubillagan aktoreak aukeratzeko. Ipuinean parte hartu gura zutela eta, atxabaltar bi joan ziren Zubillagara ea aukeratzen zituzten ikustera. **Lander Arriola** eta **Asier Zubia** izan ziren kastin horretan, baina oraindik ez dakigu zela bukatzen den ditzosozko ipuina....Beste batean kontatuko dizuet Jolibutera heldu diren ala ez.



1 949ko maiatzaren 31an ateratako argazkia da. Lehen maiatzeko domeka guztietan Amabirjinari lora eskaintza egiteko ohitura zegoen. Domeka guztietan eskaintza egiten bazitzaion ere, egun haundiena 31n izaten zen. Orduan herritar guztiak eta batez ere, emakumeak seme-alaba txikiekin joaten ziren elizara.

Argazkian herriko zenbait neska gazte agertzen zaizkigu, batzuk aingeruz jantzita daude, beheko biak barriz Amabirjinaz.

Goitik hasita, ezkerrean: **Espe Urteaga, Dominika Mendieta, Arantza Alzola, M^a Karmen Akizu, M^a Asun Arkauz.**

Goitik hasita, eskuman: **M^a Tere Arando, Puri Beltran de Heredia, Remedios Reoyos, Nati Barandiaran, Arantza Elkoro.**

Amabirjinak, beheko biak: **Ezkerrean- Pili Lasagabaster.**

Eskumakoa- Kontxita Iparragirre.

Aretxagazetako bazkideok 20.000 pta. irabaz ditzakezue hamabostero.

CAJA LABORAL-EUSKADIKO KUTXAri esker, eta goiko titularrak dioenez, atxabaltarron aldizkari honen bazkide zaretenok horrek diru- sorta ederra zurega natu dezakezu hamabostero Gabonak bitartean.

CAJA LABORAL-EUSKADIKO KUTXAk gure sariketa honetan saridun zureganatu denari opari bikaina emango dio, baina bi eratakoa izan daiteke:

1) Aipatutako saridunak nolabaiteko lotura (nomina helbideratua, Superlibreta, Gaztekontua, etabar) baldin badauka Euskadiko Kutxarekin, honek **20.000 pta.** emango dio.

2) Saridunak Euskadiko Kutxarekin inolako loturarik ez badauka, ordea, saria **10.000 pta.** koa izango da Superlibreta eta kontu gaztean sartzeko.

Majo etorriko zaizu halako opari zoragarria. Zain daukazu zure kontuan sartzeko. Kopuru txiki baten trukean sari zoragarria eskuratu dezakezu.

Lehenik eta behin, hori lortu aha l izateko, **ARETXAGAZETA aldizkariaren** bazkide izan behar duzu. Hotsegizu, 790105 telefonora eta atsegina handiz egingo dizugu kasu.

Irail honetan hasi eta Gabonak arte, "Argazkiarekin jolasean" eta "Galderekin jolasean" txandatuz ibiliko gara. Aurreko orrialdean ikusi duzue, merezi du parte hartzeak. Jakizu joku honetan bakarrik ARETXAGAZETAko bazkideek har dezaketela parte. Kasuan kasuko, 10.000 eta 20.000 pta. gorde ditugu zuretzat

BAZKIDEEK BAKARRIK IZANGO DUTE JOKU BARRI HONETAN PARTE HARTZEKO AUKERA


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

▼ Hamabostero galdera bera egingo da eta hurrengo hamabostaldian ezagutuko dugu irabazlea.

▼ Erantzun guztiak ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datoren eguna baino lehen..

▼ Aurreko zenbakiko erantzuna:

Luis Orruño.

▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea: **Aintzine Mendia.** Bazkide zenbakia: 85

✓ Erantzun galderak

- Ze kaletan dago Euskadiko Kutxa?
- Zer zen lehen Euskadiko Kutxa ze goen eraikuntza?
- Zein da une honetan zuzendaria?



Erantzuna:.....
Izen-abizenak:.....
Helbidea:.....
Tfnoa:.....



Izena: Maite Perez
Ofizioa: Tximas-eko ileapaintzailea
Afizioa: Motorrean ibili
Misioa: Lan egin ahalik eta ondoen

1.- Negu honetan zelan eramango da ilea?

- Ile motzak eta bolumen askokin.

2.- Ilea ondo zaintzeko zer egin behar da?

- Ilea askotan garbitu txanpu on batekin eta janari garbiak jan.

3.- Atxabaltako jendea ausarta da ile kontutan?

- Ez asko, gazteak ausarta-goak dira baina ez gehiegi.

4.- Uda ala negua?

- Niri udaberria eta udazkenea guztatzen zaizkit.

5.- Ze arropa ez zenuke inoiz jantziko?

- Ez dut arropa berezirik, denekin ausartuko nintzateke.

6.- Gustoko kolorea?

- Beltza

7.- Euskaraz badakizu?

- Zerbait badakit, ikasten ere egon nintzen baina ez dut asko hitz egiten. Egia esateko, zeozer txarto esateko beldurrez egoten naiz.

8.- 200 milio tokatu ezker, zer egingo zenuke?

- Etxe bat, kotxe ona... eta horrelako gauzak erosiko nituzke eta lanean jarraituko nuke

9.- Bete ez zaizun ametsa?

- Bidaiatzea, hala ere, amets hori betetzea espero dut

10.- Ze arropa mota gustatzen zaizu?

- Denetik jaztea gustatzen zait,

ez dut estilo zehatzik.

11.- Pertsonengan ze kualitate baloratzen duzu?

- Pertsonaren osotasuna, zintzotasuna, umiltasuna...

12.- Ilea-paintzailea izango ez bazina, zer izatea gustatuko litzaizuke?

- Ez dut sekula pentsatu, gustora nago ileapaintzaile lanetan

13.- Biziorik?

- Erretzea.

14.- Kirolak gustatzen zaizkizu?

- Kirola gustatzen zait.

15.- Eder-kirurgia egingo zenuke?

- Ez dut eder-kirurgiaren kontra ezer, beraz, unea heldu ezker egingo nuke.



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

2

DOMEKA

- Zاراia mendi taldearen urteera: **Palomares-era.**

- Murrukixo Mendi Elkar-tearen urteera: **Kilometroak.**

- **Kilometroak Legazpin.**

- Zikloturisten urteera: **Are-txabaleta - Eskoriatza - Aingeru Guarda- Arrasate- Are-txabaleta-Eskoriatza-Aingeru Guarda- Arrasate- Eroski-Arrasate- Aretxabaleta-Dor-leta-Aretxabaleta (58 km)**

3

ASTELEHENA

- **Okila taldeak antolatu-tako hasierako taila ikastaroa.**

11

DOMEKA

- Murrukixo Mendizale Elkar-tearen urteera: **Palomaresera.**



ARETXAZOKA

Lana

- ✓ Edozein motatako lanak garbira pasetan ditut ordena-gailuz. Interesatuak deitu 797759 telefonora.

- ✓ Esperientziadun neska bat prest dago etxeko lanak eta umeak zaintzeko. Interesatuak deitu 797792 telefonora.

Lana

- ✓ Etxebizitza alokatzen da Aretxabaletan. Tfnoa: 798956.

- ✓ Garaje bat salgai Andra Mari auzunean. Interesatuak deitu 796835 telefonora.

- ✓ Bilboko Alde Zaharreko pisu bat osatzeko norbait behar dugu. Interesatuak deitu 798286 telefonora eta Maitegatik galde-tu.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.



Euskadiko
Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuena.

18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat.

- Interes-tasa berezia.
- Libreta edo taloitegia aukeran.
- 50.000 pta.ko kreditu iraunkorra.
- Dohaineko ServiRed Txartela.
- Lehentasunezko interesa kreditu hipotekario eta pertsonaletarako. Eta ikasketetarako kreditua 5 urtera.
- Bidaia eta hizkuntz-ikastaroak atzerrian.
- Gaztearentzako informazio-telefonoa 900 20 00 00.

